

A ZORNOTZA, ORAIN

Orain, barriz, gaurkoa bizi dogu. Joana joan, ta oraingorari lotu. Eguzkiak arin dago bere sartu-urtena. Urtiak astrapaladan doaz, aldatz-beerita. Leondik ona Zornotza errila, etsez eta jentez ugaritu ta azi egin jaku. Kaleak eder, hideak nasai; auzunak, batzuk azi, ta beste batzuk, utxitu. Aldiak bere etenbako ibillian dakarrena.

1967'an, zerra zala-ta, etzerik asko erre ta kizkaidu ziran zearoon. Gaur be, barriztuta daukagu, dotore ta moduzko, kale zabal ta etxadi jaiz. Oraintze emeretzi bat urte Etxano udalez Zornotzaguz batu zan. Ego osorik ezun nai izan ezkeru, batu-azo eben, Gaur Zornotzak etxanok, bion artean arima mordoa dabez amairu milla inguru, or-orok. Urtalaxe ederra, erri bat txukun, artez ta egoki euki aal izateko bearezki. Auzun tresna ta gauza guztiakaz; urrutizkin, urrut-idazkin, bidal-etxe, azoka, jantze, jolasleku, ardangela ta olako ugariz bate. Orain ogetama. Frontoi barris, itxita, erriarentzako liburutegia, ikastetxe ta institutu. Egiteko dana, eriz-erretetik doan autopista zabala, ta abar... Zornotza erri aundi eder bat izango da.

Ara naiz ona aldatzeko be, benetako aukera emoten daukue Dono. Bermeotik Bilbora datozen trenak eta ainbat erriatik bertan zearon. Bilbora, Lemonara, tren-geltokira, Durangora, Etxanora, Gernikara ta Gernikandora eroso garoetzanak, Erdian parke zoragarri bat dauko, Zelaietako zona.

Auzunak leengoaz gainera ugaritu egin dira; Astepe, Boroa, Ibarra, Du... Larrea ta gainetakoak; inguruan, erri-zulotik urten-barik, kontu-erri... etsetxo zuri dakusguz zabaldua. Auzune oneitan eleizatxorik ba-da... San Lorenzo Ibarra, San Millan eta San Antonio Euban, San Bizent... Bediagan, San Migel ta Aita Pasionistak Dudean eta Oruen, Santa Kru... Izaragon, San Martin Aranon, San Juan Ofrendon, Gomuzion eta Er... enenen, Sorkunde Garbia Astepe, San Pedro Boroan, San Izidro Gara... don, San Juan Bateatzaillea Larrean, San Bartolome, San Antolin, San... Luzia... San Inazio Belatzikietan.



(Foto ARGAZKARI)

ZORNOTZARRAK, ZELAKOAK ETE?

Eta bertako zerua ta giroa? Oneik dira sarri gizona egiten dabena. Delmusek leenago: «Zornotzako zerua, Bizkaiko ederrenetarikoa dogu. Gaur be, nik uste, sasoi naiz sasoiatik kanpora, euri ta izotz, giro txiki ta eguzki eder, orrelaxe dala. Ta bertan bizi ziranaakaitik au inoan: «Erriak, izatez, bizi ta pozkorak dira». Oraintze be, leen esana ukatu barik alai ta txorbel dirala antortu bear.

Barruko bizitzan, barriz, zelan jokatu oi dabe? Miin gaiztoek diñoenez arimako gauzetan oiz samar dabilkiguz. Egia ete? Osoan, ez beintzat. E... dira gitxi, goiz-argiz mendi-azala zidartzean, maindire artetik urten eta euren arima arazoak eleizan egin daroetzanak. Egun harriak kezka barriak ekarte... ditu. Igande ta jaietan be, gitxi gorabeera, enparau errietakoen antzer... egingo dabez kristiñau betebearrak.

Ortik, ba, zornotzarrok, albo errietakoakaz euten erlejiño indarrak neur... ta bear ba leukiez, ez litzatekez, nire eritxiz, atzenengo geratuko. Unekad... ontan, igarri harik lez, Euskalerrri osoan gainbeera goaz erlejiño egikizune... an; baiña gainbeera ontan ezin daikegu esan Zornotza aurrelari doaki... gunik.

Emen ditugu ontarako, euskal fedeari eusteko, eleiz gizonak ugari; elei... za nagusi bat, Andra Mariari eskiñia, ta iru praille-komentu daukagu... bertan. Or Euban, muiño lerdenean ezarrita, Aita Pasionisten komentua... jakituriz ta goi-maitasunez inguruak ornidu ta edertu nairikan; or karmel... darren komentu bi, bata Larrean eta bestea kale-kalean. Larreak, ezta... ñak guzurreztuko, gizaldiak zear makiña bat mesede egin izan dautso Zor... notzari ta Euskalerrri osoari, bertako prailleen ikasbide on eta irakats... jatorrez.

Larrea dogu, izan be, Zornotza baillerako tokirik jaiki, alai ta pertxen... tena. Leenago, jauregi edo torre-etxe bat eta Doniane Bateatzailleari eski... iriko eleiza txairo bat egozan bertan; gaur, 1712-ik, beti bizitza sendoz... karmeldarren komentu zuri nasai be, antxiñako eleizeari deusola, naiz... endik naiz emendik begiz jo, guztiz jaseko ta apain daukagu. Eguzki lez... izan da, ta dogu, komentu au, Asko be asko dira, negu ta uda, bertora... datozenak, kontseju ta maitasun billa.

Plazako komentuan, barriz, ikastetxe baita, erriko ta osterantzeko gaz... tetsoei bear daben jakituria emoten jake. Eundaka dira bertan dabiltzanak;... antze jartzen dira adimenez eta biotzez. Eta asti-orduetan baita dantza, mu... sika ta abesti ederrak ikasi be.

Onez gainera ba-dira beste ikastetxe batzuk be; karmeldar monjena... esaterako; Zornotzako neskatorik geienak bertan dabiltz ogei urte oneitan... beintzat. Baita ba-dira Berrio-Otxoa akademia, euskal ikastola ta erriko... eskolak be, neska-mutikoz ondo orniduta, gabeko eskolak, bakotzarenak... eta lagun-arte batzuenak isilik itxita be.

Ze izkuntza darabille? Zornotzan gaur naikoa arrotz daukaguz, eta errez... onei euskeraz mintzatu daitezala eskutzea. Bertokuok, alan be, geien-geie... nak euskeraz dakienak dira, ta egiten dabena. Niri neuri gitxi erderaz... egingo deust. Umetxoei erakusten be ez tira gitxi saiatzan, ama gazteak ba... tez be. Ta au barruko garraren ezagarrri danik ezin ukatu.

Eta azken-urteotan darabilgun beste istillu ontan, ois, euskal meza... kontuan, zelan ete gabiltz? Alderdi ortatik, txarto ez, ezelan be. Euba... aldekoak danak dira, kontixu, euskeraz; parrokiian iru bai beintzat; eta... Larrako komentuan igande ta jai, hederatzi mezatik zortzi oso-osorik eus... keraz esaten doguz.